ISBN 84-8091-972-8; 978-84-8091-972-2

Genua, Enkarni

■ **Elurrezko panpina**

Ilustratzailea: Jesús Lucas
Donostia: Erein, 2005 (Antzoki txikia)
ISBN 84-9746-289-0; 978-84-9746-289-1
-Antzerkia-

Genua, Enkarni

■ **Katu guztiak ez dira gaiztoak**

Ilustratzailea: Jesús Lucas
Donostia: Erein, 2005 (Antzoki txikia)
ISBN 84-9746-288-2; 978-84-9746-288-4
-Antzerkia-

Igerabide, Juan Kruz

■ **Gorputz osorako poemak**

Ilustratzailea: Elena Odriozola
Bilbo: Aizkorri, 2005
ISBN 84-8263-350-3; 978-84-8263-350-3

Igerabide, Juan Kruz

■ **Koxo koxoa!**

Ilustratzaileak: Pep eta Marc Brocal
Itzultzailea: Rosetta textu zerbitzuak
Donostia: Erein, 2005 (Maleta magikoa)
ISBN 84-9746-235-1; 978-84-9746-235-8

Lluch, Enric

■ **Goxoki pote bat**

Ilustratzailea: Patricia Castelao
Itzultzailea: Rosetta textu zerbitzuak
Donostia: Erein, 2005 (Maleta magikoa)
ISBN 84-9746-236-X; 978-84-9746-236-5

Murua, Mitxel

■ **Dar-dar. Ondo eginaren ordaina**

Ilustratzailea: Angel Vadillo
Andoain: Elkar, 2005 (Ipuin harrigarriak)
ISBN 84-9783-275-2; 978-84-9783-275-5

Murua, Mitxel

■ **Gatza ala erregea. Biziak ezagutzeko hil**

Ilustratzailea: Angel Vadillo
Andoain: Elkar, 2005 (Ipuin harrigarriak)
ISBN 84-9783-276-0; 978-84-9783-276-2

Murua, Mitxel

■ **Kastillopranko. Biribil-biribilak**

Ilustratzailea: Angel Vadillo
Andoain: Elkar, 2005 (Ipuin harrigarriak)
ISBN 84-9783-274-4; 978-84-9783-274-8

Ormazabal, Joxan

■ **Estudiante Tonto. Ezkonberriak**

Ilustratzailea: Angel Vadillo
Andoain: Elkar, 2005 (Ipuin harrigarriak)
ISBN 84-9783-278-7; 978-84-9783-278-6

Ormazabal, Joxan

■ **Ikazkina eta heriotza. Besterik ez bezalako kapela**

Ilustratzailea: Angel Vadillo
Andoain: Elkar, 2005 (Ipuin harrigarriak)
ISBN 84-9783-279-5; 978-84-9783-279-3

Ormazabal, Joxan

■ **Kanillo arrantzalea eta Kanillotxiki. Zeruko berriak**

Ilustratzailea: Angel Vadillo
Andoain: Elkar, 2005 (Ipuin harrigarriak)
ISBN 84-9783-280-9; 978-84-9783-280-9

Ormazabal, Joxan

■ **Pepetxu eta Popatxu. Kardulatza salatari**

Ilustratzailea: Angel Vadillo
Donostia: Elkar, 2005 (Ipuin harrigarriak)
ISBN 84-9783-281-7; 978-84-9783-281-6

Ormazabal, Joxan

■ **Zapatari asmatzailea. Zerraldoan bizirik**

Ilustratzailea: Angel Vadillo
Andoain: Elkar, 2005 (Ipuin harrigarriak)
ISBN 84-9783-277-9; 978-84-9783-277-9

Pfister, Marcus

■ **Gaxtamin eta suzko harria**

Irun: Alberdania, 2005
ISBN 84-96310-43-4; 978-84-96310-43-8

Rubio i Martori, Marina

■ **Xabier eta koloreak**

Ilustratzailea: Emma Schmid Raset
Itzultzailea: Antton Olano Iruña
Donostia: Tarttalo, 2005 (Sirenatxoak)
ISBN 84-8091-971-X; 978-84-8091-971-5

Shulevitz, Uri

■ **Elurra ari du**

Itzultzailea: Ane Erroteta
Donostia: Hiria, 2005 (Haurren aurrenak)
ISBN 84-9797-082-9; 978-84-9797-082-2

Schupp, Renate

■ **Lore horia**

Ilustratzailea: Marie-José Sacré
Itzultzailea: Ane Erroteta
Donostia: Hiria, 2005 (Haurren aurrenak)
ISBN 84-9797-111-6; 978-84-7870-383-8

Tiourina, Svetlana

■ **Tximeleta**

Itzultzailea: Ane Erroteta
Donostia: Hiria, 2005 (Haurren aurrenak)
ISBN 84-9797-114-0

Zubizarreta, Patxi

■ **Estatua bat artista bi**

Ilustratzailea: Armand
Itzultzailea: Rosetta textu zerbitzuak
Donostia: Erein, 2005 (Maleta magikoa)
ISBN 84-9746-239-4; 978-84-9746-239-6

8 urtetik aurrera

Cano, Harkaitz

■ **Aitona eta euria = Grandad and the rain**

Ilustratzailea: Antton Dueso
Bilbo: Baigorri, 2005 (Euskal ipuinen bilduma)
ISBN 84-95663-68-6; 978-84-95663-68-9

Igerabide, Juan Kruz

■ **Dedi mago ospetsua**

Ilustratzailea: Julen Tokero
Donostia: Elkar, 2005 (Txan Magoa)
ISBN 84-9783-322-8; 978-84-9783-322-6

Igerabide, Juan Kruz

■ **Joxe panpin jostailu saltzaile fin**

Ilustratzailea: Lorena Martinez
Donostia: Elkar, 2005 (Xaguxar)
ISBN 84-9783-272-8; 978-84-9783-272-4

Igerabide, Juan Kruz

■ **Lore hautsa = Pollen**

Ilustratzailea: J. Ignazio Treku
Bilbo: Baigorri, 2005 (Euskal ipuinen bilduma)
ISBN 84-95663-67-8; 978-84-95663-67-2

Igerabide, Juan Kruz

■ **Printze txiki-txikiaren itzulera**

Iruñea: Pamiela, 2005
ISBN 84-7681-467-4; 978-84-7681-467-3

Irusta, Antton

■ **Aseye**

Ilustratzailea: Enrique Morente
Madrid: Alfaguara, 2005
ISBN 84-8147-121-6; 978-84-8147-121-2

Irusta, Antton

■ **Edurneren kondaira**

Ilustratzailea: Enrique Morente
Bilbao: Desclée de Brouwer, 2005 (Ipotxak eta erraldoiak)
ISBN 84-330-1976-7; 978-84-330-1976-9

Kazabon, Antton

■ **Anpolai gorriak**

Ilustratzailea: Arrastalu
Bilbo: Ibaizabal, 2005 (Gaztetxo!)
ISBN 84-8325-878-1; 978-84-8325-878-1

Kazabon, Antton

■ **Koloretxo**

Ilustratzailea: Moska Taldea
Bilbao: Desclée de Brouwer, 2005 (Ipotxak eta erraldoiak)
ISBN 84-330-1974-0; 978-84-330-1974-5

Landa, Mariasun

■ **Haginak eta hilobiak**

Ilustratzailea: Balzola, Asun
Donostia: Erein, 2005 (Iholdi)
ISBN 84-9746-255-6; 978-84-9746-255-6

Landa, Mariasun

■ **Izar berdea = The green star**

Ilustratzailea: Jokin Mitxelena
Bilbo: Baigorri, 2005 (Euskal ipuinen bilduma)
ISBN 84-95663-66-X; 978-84-95663-66-5

Landa, Mariasun

■ **Marina**

Ilustratzailea: Asun Balzola
Donostia: Erein, 2005 (Iholdi)
ISBN 84-9746-254-8; 978-84-9746-254-9

Mendiguren Elizegi, Xabier

■ **Karakolaren barruan**

Ilustratzailea: Jokin Mitxelena

Donostia: Elkar, 2005

ISBN 84-9783-313-9; 978-84-9783-313-4

Non biziko gara?

■ **Ilustratzailea: Jesús Lucas**

Donostia: Erein, 2005 (Antzoki txikia)

ISBN 84-9746-284-X; 978-84-9746-284-6

- Antzerkia-

Olaizola, Alaitz

■ **Txiukue**

Ilustratzailea: Jon Zabaleta

Donostia: Erein, 2005 (Antzoki txikia)

ISBN 84-9746-286-6; 978-84-9746-286-0

-Antzerkia-

Uribe, Kirmen

■ **Guti**

Ilustratzailea: Antton Olariaga

Donostia: Elkar, 2005 (Kuku)

ISBN 84-9783-328-7; 978-84-9783-328-8

Wölfel, Ursula

■ **27 ipuin zopa hartzeko**

Ilustratzailea: Bettina Wölfel

Itzultzailea: Lola Erkizia, Inazio Mujika Iraola

Irun: Alberdania, 2005 (Osinberde)

ISBN 84-96310-56-6; 978-84-96310-56-8

Zubizarreta, Patxi... [et al.]

■ **Gure mundu txikitik**

Ilustratzailea: Iñaki Martiarena "Mattin"

Donostia: Elkar, 2005

ISBN 84-9783-327-9; 978-84-9783-327-1

Zubizarreta, Patxi

■ **Hiru lagun**

Ilustratzailea: Elena Odriozola

Bilbo: Ibaizabal, 2005 (Paper txoriak)

ISBN 84-8325-883-8; 978-84-8325-883-5

eta, Patxi

■ **Pantaleon badoa**

Ilustratzailea: Jokin Mitxelena

Iruñea: Pamiela, 2005

ISBN 84-7681-466-6; 978-84-7681-466-6

10 urtetik aurrera

Arana, Aitor

■ **Gaueko ortzadarra**

Ilustratzailea: María Felices

Bilbo: Ibaizabal, 2005 (Gaztetxo!)

ISBN 84-8325-877-3; 978-84-8325-877-4

Aretzaga, M^a Teresa

■ **Eta dena katu beltz baten erruz**

Ilustratzailea: Mariano Gabriel Epelbaun

Itzultzailea: Antxiñe Mendizabal Aranburu

Bilbo: Giltza, 2005 (Tukan)

ISBN 84-8118-855-7; 978-84-8118-855-4

Esnañ, Pello

■ **Egundokoa haiz, Segundo!**

Ilustratzailea: Concetta Probanza

Donostia: Erein, 2005 (Igelio Igela)

ISBN 84-9746-265-3; 978-84-9746-265-5

Goscinny, René

■ **Nikolas Txikiren historia ezezagunak 1. Itzulera**

Ilustratzailea: Jean-Jacques Sempé

Itzultzaileak: Koro Navarro, Josu Zabaleta

Donostia: Elkar, 2005 (Xaguxar)

ISBN 84-9783-268-X; 978-84-9783-268-7

Goscinny, René

■ **Nikolas Txikiren historia ezezagunak 2. Familia bazkaria**

Ilustratzailea: Jean-Jacques Sempé

Itzultzaileak: Koro Navarro, Josu Zabaleta

Donostia: Elkar, 2005 (Xaguxar)

ISBN 84-9783-301-5; 978-84-9783-301-1

Goscinny, René

■ **Nikolas Txikiren historia ezezagunak 3. Txistea**

Ilustratzailea: Jean-Jacques Sempé

Itzultzaileak: Koro Navarro, Josu Zabaleta

Donostia: Elkar, 2005 (Xaguxar)

ISBN 84-9783-318-X; 978-84-9783-318-9

Inongo Vi Makomè

■ **Ur jauzien negarra**

Itzultzailea: Lurdes Auzmendi
Ilustratzailea: Aitziber Alonso
Bilbao: Desclée de Brouwer, 2005 (Ipotxak eta erraldoiak)
ISBN 84-330-1978-3; 978-84-330-1978-3

Jimenez de Cisneros, Consuelo

■ **Oraindik badira piratak heriotzaren itsasertzean**

Itzultzailea: Jose Antonio Sarasola
Ilustratzailea: Nivio López Vigil
Bilbo: Ibaizabal, 2005 (Papertxoriak)
ISBN 84-8325-885-4; 978-84-8325-885-9

Sarrionandia, Joseba

■ **Harrapatutako txorien hegalek = Trapped bird's wings**

Ilustratzailea: Jokin Mitxelena
Bilbo: Baigorri, 2005 (Euskal ipuinen bilduma)
ISBN 84-95663-69-4; 978-84-95663-69-6

12 urtetik aurrera

Igerabide, Juan Kruz

■ **Artur erregearen heriotza**

Donostia: Erein, 2005
ISBN 84-9746-281-5; 978-84-9746-281-5

Kazabon, Antton

■ **Zigarrotxoa ahoz aho**

Bilbao: Desclée de Brouwer, 2005 (Ipotxak eta erraldoiak)
ISBN 84-330-1979-1; 978-84-330-1979-0

Linazasoro, Karlos

■ **Lau ipuin matteomigliar**

Ilustratzailea: Jokin Mitxelena
Donostia: Elkar, 2005 (Xaguxar)
ISBN 84-9783-330-9; 978-84-9783-330-1

Osoro, Jasone

■ **Jara bikiak eta bikoteak**

Ilustratzailea: Luis Astrain
Etxebarri (Bizkaia): Zubia, 2005 (Gazte literatura)
ISBN 84-8147-141-0; 978-84-8147-141-0

Urkixo, Joanes

■ **Nerabeak eta beste munstro batzuk**

Bilbo: Aizkorri, 2005
ISBN 84-8263-419-4; 978-84-8263-419-7

14 urtetik aurrera

Billelabeitia, Miren; Jon Kortazar

■ **Gazteentzako euskal poesiaren antologia**

Ilustratzailea: Mikel Valverde
Etxebarri (Bizkaia): Zubia, 2005 (Gazte literatura)
ISBN 84-8147-073-2; 978-84-8147-073-4
-Poesia-

Egaña, Arrate

■ **Kixmi elurpean**

Donostia: Elkarlanean, 2005 (Bizi taupadak)
ISBN 84-9783-263-9; 978-84-9783-263-2

Fernández Paz, Agustín

■ **Itzal suntsigarrien gaua**

Ilustratzailea: Joaquin Resano
Itzultzailea: Manu López Gaseni
Iruñea: Pamiela, 2005
84-7681-452-6; 978-84-7681-452-9

Ibarlucea Paredes, Carmen

■ **Munduko hamar ipuin: norberaren eta besteen heziketarako lagungarri**

Ilustratzailea: Edurne Alegria
Baiona: Gatuzain, 2005
ISBN 2-913842-38-0

Mankell, Henning

■ **Bidaia munduaren amaierara**

Itzultzailea: Juan Mari Mendizabal
Donostia: Erein, 2005 (Perzebal)
ISBN 84-9746-221-1; 978-84-9746-221-1

Martinez de Lezea, Toti

■ **Erregearen mezularia**

Madrid: Alfaguara, 2005 (Sail gorria)
ISBN 84-8147-818-0; 978-84-8147-818-1

Muñoz Puelles, Vicente

■ **Portobelloko argazkia**

Itzultzailea: Aitor Arana

Bilbo: Ibaizabal, 2005 (Ameslari)

ISBN 84-8325-886-2; 978-84-8325-886-6

16 urtetik aurrera

Bidegain, Eneko

■ **Mahatsaren begia**

Donostia: Elkarlanean, 2005 (Gazteluma)

ISBN 84-9783-241-8; 978-84-9783-241-0

LIBURU OSO
GOMENDAGARRIAK

4 urtetik aurrera

Igerabide, Juan Kruz... [et al.]

■ **Egizu lo. Lotarako ipuinak**

Ilustratzailea: Eider Iribar

Donostia: Elkarlanean, 2005

ISBN 84-9783-300-7; 978-84-9783-300-4

“Egizu lo” izeneko kanta eta ipuin sorta bi produktu dira, liburu eta CDa, baina helburu bera dute, haurrak goxo-goxo ametsetara bideratzea euskarazko musikaren eta literaturaren laguntzaz.

Juan Kruz Igerabidek, Harkaitz Canok, Miren Agur Meabek, Txilikuk, Mitxel Muruak, Anjel Lertxundik, Joxan Ormazabalek eta Kirmen Uribek argitalpenerako propio idatzitako eta moldatutako ipuin eta poemak biltzen ditu liburu berezi honek. Era askotako kontakizunak dira: herri-ipuinak (gaur egungo idazleek moldatu eta egokituak), urrutiko tradizioetatik hartutako bat edo beste (Arabia, Txina, Tibet, India) poemak, kantikak eta sortu berriak diren ipuinak. Denak ezberdinak, motzak, bereziak, loaren atarian gaudenean irakurtzeko edo entzuteko oso aproposak.

Liburuak marrazki ugari ditu, Eider Eibarrek egindakoak. Zornotzar gazte honen lana gero eta ezagunagoa da, ilustrazio mailan ez ezik, animazio filmetan ere bai. Akwarela goxoak, ametsen munduan murgiltzeko aproposak.

Diskoaren abiapuntua, osterara, ezberdina da, kantu guztiak baitzeuden aurretik argitaratuak. Gehienak sehaska kantikak dira, haurraren munduari eskainiak guztiak. Musikari ezagunak bildu dituzte: Benito Lertxundi, Oskorri, Julen Lekuona eta Jon Bergaretxe, Olatz Zugasti, Amaia Zubiria, Xabier Lete eta Lurdes Iriondo, Niko Etxart, Imanol Aritza, Haizea, Urretxindorrek, Maddi Oienhart eta Pello Ramírez. Diskoa musika hutsezko bi piezarekin hasi eta bukatzen da, eta tartean “Haurra sehaskatxoan”, “Amaren bularra”, “Loa-loa ttuntturrin” (lehen aldiz CDan) edota “Loa loa” kantikak daude.

Luxuzko edizioa, beraz, puntako idazle, musikari, ilustratzaile eta maketatzaileak batu dituena. Gurasoentzako proposamen oso gomendagarria, umeei irakurtzeko eta kantatzeko lotara doazen unean. Oso aproposa baita oparia egiteko ere.

Ume guztiek izan behar duten liburu kuttuna, beraien loaldia zaintzen duena.

Ramos, Mario

■ **Hiru txerriren txerrikeriak**

Donostia: Ttartalo, 2005

ISBN 84-8091-005-4; 978-84-8091-005-7

Ikasle berri bat etorri da gaur eskolara. Ez da izango ikasle bat gehiago gelan. Ez horixe!. Ikasle berria is different : “beldur pixka bat ematen du”, “gaiztoa ematen du”, “gizajoa”, pentsatu eta esango dute bere ikaskideek. Badira kantatuko diotenen ere :

“Ileak lepoan!

Ileak oinetan!

Ileak edonon!

Zatarragorik non?”

Baina, badago ikasle bat, Aritz, taldeko isileko arauak apurtu eta berriarengana hurbilduko dena. Lagun handiak egiten dira. Eta beronek, Aritzek, laguntzen dio azkenean, ikasle berriak duen arazo potoloa, eta, sekretuan gordetzen duena, askatzen ...

Animaliak protagonistak izanik, txerri eta otso, idazleak ederto asko azaltzen ditu gizakien arteko harremanetan sortzen diren egoera desberdinak eta baita sentimenduak ere.

Ilustrazioak oso adierazgarriak dira, eta, testuaren eta irudien arteko uztardura bete-betea da. Edizio zaindua, atsegina, bai irakurtzeko eta baita kontatzeko ere oso gomendagarria den istorioa.

Zubizarreta, Patxi

■ **Urrezko giltza**

Ilustratzailea: Mitxelena Eritze, Jokin

Donostia: Erein, 2005

ISBN 84-9746-282-3; 978-84-9746-282-2

Lehen urtearen hondarrean plazaratu baldin bazen liburu ederrik, hori, Patxi Zubizarretaren Urrezko giltza izan zen, batere zalantzarik gabe. Hain da bikaina, hain ederra eta biribila, ezen etorkizunean ere emango baitu zer esanik. Hain dago zainduta liburuaren edizioa: dela testua, dela ilustrazioa eta dela diseinua! Esaterako, azalak. Gustua ematen du, benetan, hain azal gogorra ireki, eta hain kontrazal iradokitzailearekin topo egitea! Dena da intimoa, dena sentibera eta samurra; baina, aldi berean tinkoa eta sendoa. Hitz batean esateko: dotorea. Plazerra da liburu ukitzea, plazerra orriak pasatzea eta arnas hartzea hain orri handietan, hitzek arnas hartuko balute bezala, kometak bailiran, edota arrainak estreinatu gabeko paradisuetan barrena.

Horretarako, jakina, ezinbestekoa izan da liburuaren zaintzea zaindu den bezala: testuaren tipografia, paragrafoen konposizioa, koloreen tonu distiragarria,

atalen ordena... Esan daiteke, hain edizio zaindun, espazioak aireratu egiten duela testua, eta, orduan, testua hegaldatu egiten dela marrazkiekin batera, eta dena agertzen dela argi, eta dena gordetzen dela garbi, eta sortzen dela erresuma oniriko bat, txikitako jokalekua balitz bezala, non dena den posible: ipuin bat entzutea, zaldiko-maldikoan ibiltzea, kantatzea, ikusi-makusika dibertitzea, testu bat irakurtzea, ilustrazioa dastatzea, cd-a entzutea...

Izan ere, horrelakoxea baita liburua: alde batetik, sinplea, eta bestetik, anitza, urrezko giltzaren magiak harrapatua bailegoan. Horretarako, urrezko giltzaren erresuman sartu ahal izateko, ezinbestekoak dira Jokin Mitxelenaren marrazki espresiboak; eta, dudarik ez, testua, zeinean gure ahozko tradizio onaren iturrian edaten den. –Ezin dugu ahaztu Patxi Zubizarreta betidanik izan dela ahozko tradizioaren mireslea.– Eta, hain zuzen ere, tradizioa gogoko duelako, eta batik bat etorkizunari begira diharduelako, liburu hau mamitu du.

Ipuinen jatorria, oro har, Euskal Herrikoa da, baina asko eta asko bestelako tradizioetatik hartutakoak dira. Aldiz, bai kantuak eta bai jolasteko formulak, euskal jatorrikoak dira denak.

Diskoari dagokionez, Joserra Senperena arduratu da alderdi musikalaz. Hona partaide batzuen izenak: Martin Tejeria, Mari Karmen Odriozola, Josune Lopez, Xabi Lopez, Maddi Oihenart, Olatz Zugasti, Gasteizko Abendaño ikastolako abesbatza, eta abar.

Hona, beraz, helduek eta haurrek elkarrekin konpartitzeko liburu bikaina, adinik gabekoa, eta balio duena ez lo hartzeko baizik ametsak esnatzeko, ipuinak, pipitakiak, marrazkiak, musika doinuak eta hainbat formula lagun.

8 urtetik aurrera

Landa, Mariasun

■ **Iholdi**

Ilustratzailea: Asun Balzola

Donostia: Erein, 2005 (Iholdi)

ISBN 84-9746-250-5; 978-84-9746-250-1

Liburu hau oso era poetikoan idatzita dago, eta Iholdiren narrazioen bilduma da.

Eguneroko istorio xumeak dira, freskotasan eta sentimendu handiz idatzitakoak, eta irakurlearen bihotza emozioz eta umorez beterik uzten dituztenak.

Idazlea bizitza arruntaren hondoetan murgiltzen da,

eta irakurleok oso identifikatuta sentitzen gara haurren esperientziekin, barneko ikuspegi hura unibertsa baita.

Nahiz eta protagonista bat izan, istorioak autonomoak dira, eta banan-banan irakurri ditzakegu. Gainera, ozenki ondo irakurtzen badira, haur eta helduen artean lilura zoragarria sortu dezakete.

Liburua, Asun Balzolaren ilustrazio berriekin, Iholdiren (Erein, 1988) edizio berria da, eta, gure ustez, aukera ederra liburu xarmanta hau errekuperatzeko. Gure ustez, Landaren obra hau, gure Haur Literaturaren klasiko bat da.

Asun Balzolari, hain presente dagoena gure mintegian eta liburu gidan azkeneko urteetan, gure omenaldi beroena adierazi nahi diogu.

Landa, Mariasun

■ **Amona, zure Iholdi**

Ilustratzailea: Balzola, Asun

Donostia: Erein, 2005 (Iholdi)

ISBN 84-9746-253-X; 978-84-9746-253-2

Amona hegazkinen joan-etorria zuzentzen egongo da zeruan, baina denbora izango du Iholdik lurra egiten duena ikusteko, hau da, behintzat, Iholdik uste duena.

Bizirik zegoenean elkarren artean zuten konplizitatea areagotu egin da amona hil zen egunetik. Amonari zuzendutako gutun baten bidez emango dio gertaera baten berri. Martin lehengusuak eta berak benetako pistola bat aurkitu dute usategi zahar batean. Gai honekin kezkatua dago eta laguntza bila zuzenduko zaio amonari, eta, betiko moduan, behar zuen aholkua aurkituko du amonarengan.

Mariasun Landak unibertso propioa sortu du haurren eguneroko arazo txikiak kontatzeko orduan. Haurrak izan ditzakeen hausnarketetan barneratzen da, eta hortik abiatuta istorioak asmatzen ditu. Haurren eguneroko bizipenetan, sentimenduetan...murgiltzen da, eta haien ikuspuntutik hitz egiten du; haurren ahotsada, azken batean, benetako protagonista

“Amona, zure Iholdi”, 2000. urtean argitaratu zen lehen aldiz, baina Iholdi bera aspalditik ezagutzen dugu. Orduko istorioak ahaztezinak bilakatu dira, eta gure haur literaturan merezitako lekua bete dute. Honako Iholdi hau haren jarraipena dugu, urteak pasa dira eta bizipenak aldatu dira, baina funtsean guztionak bezalako arazoak dituen neskatila berbera dago oraindik,...

Asun Balzolaren marrazki berriek ilustratzen dute azken argitalpen hau. Nabaria da bi emakume hauen arteko harremana oso sakona izan dela.

Landa, Mariasun

■ **Alex**

Ilustratzailea: Balzola, Asun

Donostia: Erein, 2005 (Iholdi)

ISBN 84-9746-252-1; 978-84-9746-252-5

Alexek ahalmen berezi bat du, etorkizuna ikus dezake, baina ez da hori liburu honen ardatza. Alexek lagun berezi bat du, Nina izenekoa, eta adiskidetasun hau dugu hain zuzen gertatuko den guztiaren oinarri: bere bizipenak, sentimenduak, desioak, beldurrak...

Ospitaletik kontatuko digu Alexek zergatik dagoen bertan, zer gertatu zen Ninarekin, nola salbatu zuen eta nola “antiabentureroak” izan arren, ezohiko abentura baten protagonistak bilakatu diren.

Ezustez heroi bilakatu diren antiheroien abentura kontatzen da liburu honetan. “Ezberdinak” sentitzen direnen sentimenduak ezagutuko ditugu, ausartak ez direnen bizipenak.

Barne arazoak ditu gustuko Mariasun Landak, irakurlearen barnea ukitzen dituztenak. Neurri handi batean, guztiok izan dugu inoiz ulertuak izateko beharra.

Landa, Mariasun

■ **Izeba txikia**

Ilustratzailea: Asun Balzola

Donostia: Erein, 2005 (Iholdi)

ISBN 84-9746-251-3; 978-84-9746-251-8

Izeba txikia, familia bateko zortzigarren alaba txikiena izanik, Maite bere ahizpak izan behar duen umeak izaba egingo du.

Mariasun Landak lan honetan denbora, altxor preziatu hori, hartzen du umearen etorreraren zain. “Geranioa landa ezazu eta loratzen denean, Etorri Behar Duena azalduko da”, naturari utzi natura izaten, gizakiaren erritmoari utzi bere bidea egiten, esaten digu autoreak.

Izeba Txikiarekin batera umearen zain gaude denok, denbora dastatzen, naturaren erritmoa esperimentatzen, bihotzeko taupadak entzuten. Eta zein esperientzia ederra oparitzen zaigun!

Gurea den idazleak haur baten jaiotzaren bizitzaren magia, sinbologia eta misterioa erabiliz, istorio biribila kontatzen digu, hasiera eta amaiera maisukiro lotuz.

Asun Balzolaren ilustrazioek osotasun bikaina ematen diote liburuari. Benetan irakurketarekin gozatzeko aukera paregabea.

Martín Garzo, Gustavo

■ **Maitagarrien hiru ipuin**

Ilustratzailea: Elena Odriozola

Itzultzailea: Juan Kruz Igerabide

Donostia: Elkar, 2005 (Xaguxar)

ISBN 84-9783-271-X; 978-84-8118-842-4

Hiru ipuinez osatutako liburua da hau, eta bertan, maitagarriak, herensugeak, printzeak eta abar aurkitzen ditugu. Lehenengo ipuinak, Urretxindorren hegaldiak, zazpi urteko neska baten eta urretxindor baten arteko harremana kontatzen du. Irakurri ahala konturaratzen gara nola txoriak bere bizitza galduko duen neskatoarenaren truke. Bigarrenak, haur izan nahi zuen maitagarria, maitagarriek hurrei arima lapurtzeko duten joera azaltzen du; eta, azkenik, Printze maitea, herensugearen eta printzesaren arteko amodioaren ondorioz sortutako semearen zoritxarreko ipuina.

Liburu honen jatorrizko bertsioak (Tres cuentos de hadas) Espainiako Haur eta Gazte Literaturako Sari Nazionala irabazi zuen 2004an.

Ipuinak ondo egituratuta daude, eta bete-betean asmatu du, betiko ipuinei lotuta baitaude.. Honela bada, ipuin klasikoetan ohikoak diren gaiak aitatzen ditu: amodioa, heriotza, adiskidetasuna..., baina gaur egungo bizimoduari egokitutako komentarioak tartean sartuz, eta liburua aberatsagoa bihurtu du. Halaber, ipuin fantastiko hauek bikain girotuta daude; ez da zaila aintzira eta baso lanbrotsuetan murgiltzea, edo kobazuloetan barrena alegiazko gizakiekin topo egitea. Horretaz gain, sentimenduak ere ederto deskribatzen ditu era guztietako sentipenak agertuz, modu hunkigarrian gainera.

Idazleak Andersen eta Grimm anaien eragina aitortzen du; oso gustuko omen ditu maitagarrien ipuinak, eta benetan sarrarazten du irakurlea mundu fantastiko hauetan.

Elena Odriozolaren zuri-beltzeko irudiak pertsonaien sentimenduak islatzen dute modu goxo eta iradokitzailean.

Itzulpena, berriz, Juan Kruz Igerabidek egin du eta haur eta gazte literaturan duen eskarmentua ezagututa, moldapen biribila egin duela esan dezakegu.

López Gaseni, Manu

■ **Gogoa lege**

Madrid: SM, 2005 (Baporea)

ISBN 84-675-0619-9; 978-84-675-0619-8

Euskal Literaturan urriak izan dira zientzia fikzioa jorratu duten egileak. Genero honek behar lukeen baino arreta txikiagoa jaso du, kontuan izanik gazteen artean jarraitzaile ugari dituela. Kasu honetan, Manu Lopezek eleberri biribila taxutzea lortu du, zientzia fikziotik haratago, eta hausnarketarako beta ematen duten hainbat gai jorratu ditu, bai maisuki jorratu ere.

Liburuaren argumentua XX. mendearen amaiera aldean kokatzen da. Gizarteari hondamendi lazgarria datorkio, eta Lur planeta jadanik ez da bizileku duina gizakiarentzat, irtenbide bakarra, honenbestez, erbesteratzea izango da. Gizakiak Martitz inguruko satelite bat hartu du bizileku, baina egoera ez da batere duina hango biztanleentzat. Meatzariek lan egoera kaskarrak jasaten dituzte, eta hilkortasun maila oso altua da. Testuinguru honetan, Xarmanta doktoreak hainbat ikerketa burutu ostean, gaitza genetiko delako ondorioztatuko du; honela, bertako langileak estazio espazialean sortutako klonak izango lirakeke. Aurkikuntza harrigarri bat dela medio, estralurtar baten hezurra izan daitekeena aurkitu ondoren, sendagai gisa erabiltzea erabakitzen du: hasiera batean langileak gaztetu egingo dira, baina berehala itxuraldaketa harrigarriak gertatzen hasiko dira...

Zientzia fikzioa abiapuntu duen eleberri honek, gaurkotasuna duten hainbat gai jorratzen ditu: klonazioa, teknologia berrien garapena, giza etika, e.a. Gai hauen guztien aurrean, etorkizun iluna irudikatzen digu egileak: eskubide zibilak murriztuak daude, gizakiarentzat ez dago duintasunik eta etorkizuna ez da oso itxaropentsua. Orain arte teknologiaren garapen hutsak zoriontasuna eta ongizatea ekarriko omen zituen, baina etorkizuna beste era batekoa izango da. Istorio fantastiko batean txertatutako gai unibertsalak lantzen ditu egileak: Hilezkortasunarekiko itsukeria, handinahikeria: “Baina nork izan nahi du hilezkorra (...) Zoriontsuagoak izango ginatete? Nik nahi nukeen gauza bakarra diuntasuna da.” (65 or.)

Liburuan zehar intrigazko eta tentsio une handiko pasarteak tartekatzen dira, irakurlearen arreta bereganatzea lortuko dutenak. Hizkuntza aberatsa darabil egileak, batik bat, azalpen zientifikoak ematen dituenean, ildo honetatik, aipatzekoa da burutu duen dokumentazio lan mardula. Ezbairik gabe, liburu entretenigarri eta sakon baten aurrean gaude, ertz asko erakusten dituen, eta irakurle oro, gazte zein heldu, bereganatzeko elementu ugari dituen.

Pullman, Philip

■ **Zubi hautsia**

Itzultzailea: Koro Navarro

Donostia: Erein, 2005 (Bioleta)

ISBN 84-9746-224-6; 978-84-9746-224-2

Erein argialetxeak argitaratua du jada, Bioleta Sailaren barruan, Philip Pullman-en beste eleberri bat: "Tximeleta tatuajea" izenburukoa; honako hau euskaratu den egilearen bigarren lana da. Aurreko liburuaren ildoari jarraituz, intrigazko eleberrigintzaren barruan kokatuko genuke, hain eroso sentitzen den generoaren barruan.

Kasu honetan Ginny 16 urteko gaztetxo da protagonista nagusia, ezustean ezkutukoi anaia duela ezagutuko du, Robert izenekoa, eta anaia hau oinordeko zuzena dela ere jakingo du, aitzak berak uste izan arren, ez baitzen Ginnyren amarekin egitan ezkondu; horrenbestez, alboratuta eta atsekabetuta sentituko da, ordura arte sinistutakoak deus ere balioko ez duelako berarentzat. Honela bada, Ginnyk bere iraganaren inguruan egia bilatu beharko du, eta bide honetan pertsonaia eta gertaera ilun ugari ezagutuko ditu.

Egilearen aurreko eleberrian liburuaren lehen orrialdetik bertatik zer gertatuko zen jakiterik bagenuen ere, oraingoan egileak liburuaren amaieraraino tentsioan mantenduko gaitu. Liburuan zehar intriga mantentzeko informazioa emeki-emeki eskainiko zaigu, irakurlearen arreta erabat bereganatuz, aztarna edo zantzu berriek ikerketan norantz eramango gaituzten jakin nahirik. Etengabe galderak eta alderdi ezkutukoak izango ditu irakurleak bere gain. Ildo horretatik, narrazioa 3. pertsonan dago kontatua, narrazioaile orojakilearen ikuspuntutik.

Pertsonaien deskribapenak oso landuak dira, beraien barne sentimenduak, pozak, tristurak maisuki deskribaturik daude. Intrigazko eleberri bat izaki, pertsonaien garapenak eta sentimenduek indar handia hartzen dute kontakizunean, honela bi maila gurutzaturik izango ditugu: alde batetik, Ginny pertsonaia nagusiaren bilakaera, bere garapen pertsonala, iraganari buruzko ikerketan oinarriturikoa: hau alderdi intimistagoa izango genuke, pertsonaiaren sentimenduetan finkatzen dena; eta bestetik, zubi hautsiaren misterioaren ingurukoa: hauetan pisu handiagoa hartzen dute intrigek eta ekintzen ikerketek.

Kontakizunaren garapenari dagokionez, zubi hautsiaren istorioak ez du amaiera garbirik, egileak bide baterantz eramaten gaitu, baina azkenean irekita gelditzen da korapiloa eta, agian, intrigak indarra galtzen du amaiera horrekin. Bestela ere, kontakizunak irakurlearen arreta bereganatzea lortzen du, hasi eta bukaeraraino irakurtzea eskatzen duten liburu horietako baten aurrean gaude. Liburua euskara txukun eta irakurterrazean idatzita dago, Koro Navaroren lana aipatzeko modukoa da.

Swindells, Robert

■ **Kale gorrian**

Itzultzailea: Iñaki Mendiguren

Donostia: Elkar, 2005 (Taupadak)

ISBN 84-9783-302-3; 978-84-9783-302-8

Kale gorrian bizi da Link, gurasoekin moldatu ezinik etxetik joan beharra duenetik. Hamasei urteko protagonista hau Londreseko kaleetan zehar dabil, nora ezean, izuak eta hotzak kizkurtuta. Linkek zailtasun askori egin beharko die aurre ez baita erraza kaleko bizitza, jateko zerbait eta lotarako tokia aurkitzea. Egun bakoitza biziraupenerako borroka latza bihurtuko da.

Aldi berean, Shelter, Britaniar soldadu beteranoa, Londreseko kaleak garbitu nahian dabil eta eskale etxegabe edo "homeless"-en arazorekin bukatzeko baditu planak.

Robert Swindells britaniar idazleak Carnegie Medal saria jaso zuen liburu honekin.

Idazleak hiru gau egin zituen Londreseko kaleetan eskale moduan protagonistaren esperientzia bere azalean bizitzeko eta jakinaren gainean esperientziak idazteko.

Liburua bi protagonisten egunkaria balitz bezala dago idatzita, eguneroko gertakizunak, desioak, pentsamenduak bertan irudikatuz. Pertsonai bakoitzari dagokion zatia ondo bereiztua ageri da, tipografia desberdina erabiliz.

Liburua ondo idatzita dago, erraza eta arina, gazteek gustura irakurriko dituzte

Link-en abenturak Londreseko kaleetan eta eskaleen bizitzan sakontzeko aukera paregabea izango dute.

Baina gazteek ez ezik, helduek ere gustura irakur dezaketen liburu baten aurrean gaude, interesgarria oso, eskale etxegabeen bizimodu gordina ezagutzeko aukera aproposa, finean.



HELVETIA ET
EFFICIENTIA ZENTRUM
LAKU DALLA
L'ACQUADRO DI
HUMANIDADES Y
CIENCIAS DE LA POLÍTICA